

## SAKANAKO MANKOMUNITATEA

### Hautaprobez bidez garbitzaile lanpostua, aldibaterako betetzeko hautagai zerrenda osatzeko deialdia.

#### 2022ko martxoaren 21eko 94/2022 Lehendakariaren ebazpena, hautaprobez bidez garbitzaile lanpostua, aldibaterako betetzeko hautagai zerrenda osatzeko deialdia.

#### 1. Oinarria.- Arau orokorrak:

1.1. Deialdi honen xedea da Sakanako Mankomunitatearen zerbitzurako garbitzailearen lanpostua, betetzeko izangaien lan-poltsa bat eratzea, euskara B2 hizkuntza-eskakizuna duena, lanpostu hutsak, laneko bajen ondorioz behin behineko ordezkapenak, oporrak eta mankomunitateko zerbitzuak indartzeko unean uneko beste edozein behar betetzeko.

Lanpostu hau Nafarroako Administrazio Publikoetan Administrazio Araubideko Langileen Kontratazioa arautzen duen, irailaren 28ko 68/2009 Foru Dekretuko 5.artikuluan arautzen denari lotuta dago, lanpostu hutsak aldi baterako betetzeko kontratuei atxikita, behin betiko betetzen ez den bitartean.

1.2. Deialdi hau Nafarroako Administrazio Publikoetan Sartzeko Erregelamendua onartzen duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuaren eta aplikatzekoak diren gainerako arauen arabera egingen da.

1.3. Deialdi honen argitan egiten den edozein kontratu azkentzeko arrazoia izanen da irailaren 28ko 68/2009 Foru Dekretuaren 5. eta 8. Artikuluetan aipatzen den edozein arrazoi (68/2009 Foru Dekretua, Administrazio Publikoetako Araubide Administrazio boko langileen kontratazioa arautzen duena).

1.4. Hilabeteko probaldia ezartzen da, zeinetan bi alderdietako edozeinek kontratua alde bakarretik deuseztatu ahal izango duen.

1.5. Lanpostua betetzeak lanpostuari, maila eta kategoriari dagozkion eginkizunak betetzea dakar berarekin.

1.6. Deialdi honen bidez egindako izendapenak Sakanako Mankomunitateko administrazio-kontratudun langile izaera emango dio ondorio guztietarako izendatutako pertsonari, eta honako hauek arautuko dute lan harremana: kontratuan ezarritakoak, oinarri hauek, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutua eta gainerako araudi aplikagarria.

Izendatutako pertsonari Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta emango zaio, araubide honetan aurreikusitako babes-jardunaren menpe.

Gainditu duten izangaiei sortzen diren premien arabera eta oinarri hauetan ezarritakoaren arabera dei egin ahal izango zaie.

1.7. Deialdia egin duen administrazio-organoko organo eskudunak ezarriko ditu lanaldia eta lan-ordutegia. Lanaldiaren araubidea urte bakoitzerako onartutako egutegian jasoko da, administrazio-organoko eskudunek zerbitzuaren funtzionamenduan gerora sortutako beharrei erantzuteko aldatu ahal izango dutelarik.

1.8. Zereginak:

- Dauden gela, altzari eta instalazio guztiak, oro har, garbitzea.
- Komunak garbitu eta desinfektatzea; komuneko papera eta eskuetako paper lehorra aldatzea.
- Zorua, hormak, barruko sabaiak, patioak eta terrazak era guztietako estaldurekin garbitzea.
- Eskailerak, heldulekua, kirtanak eta sarreretako eta irteeretako gainerako elementuak garbitu eta desinfektatzea.
- Mahaiak, aulkiak eta salmahaiak garbitzea.
- Hautsa Kendu.
- Arotzeriak, kristalak, markoak, janbak eta pertsianak oro har garbitzea eta desinfektatzea.
- Eraikuntza-lanen hondarrak kendu ondoren, garbiketaz arduratzea.
- Hondakinak gaika ateratzea, mankomunitateko irizpidearen arabera, eta poltsak birjartzea.

1.9. Lanpostua Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren D mailari dagozkion oinarriko ordainsariak dagozkie.

## **2.oinarria.- Izangaiei betekizunak**

Oposizio lehiaketa honetan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean:

2.1. Espainiako Nazionalitatea izatea, edo Europar Batasuneko estatu kideren bateko nazionalitatea edo Europako Erkidegoak sinatu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko tratatuen aplikazio-eremuan sartutako estatu bateko nazionalitatea izatea, baldin eta abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 7.artikuluan ezarritakoaren arabera langileen eta haien senideen zirkulazio askea jasotzen badute.

Europar Batasuneko edozein estatuko edo aipatu nazioarteko itunak sinatutako beste estuetako herritarren ezkontideek ere parte har dezakete, zuzenbidez bereizita ez badaude, eta orobat beren ondorengoez eta ezkontideenek – zuzenbidez bereizita ez badaude- hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo adin horretatik gorakoak izanda haien kargura bizi badira.

2.2. Hamasei urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.

2.3. Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean, **DBHko titulua, Lanbide Heziketako lehen graduako titulua edo horien baliokidea izatea.**

2.4. Dagozkion eginkizunak betetzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

2.5. Funtzio publikoak betetzeko desgaitasun- edo etete – egoeran ez egotea eta administrazio publiko baten zerbitzutik bananduta ez egotea.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek ezin dute beren estatuan administrazio publikoan sartzea eragozten duen diziplina-zehapenik edo zigor kondenarik eduki.

2.6. Europako Esparru Bateratuko **B2 mailako (idatzi eta ahozkoa) euskara titulua** izatea edo Mankomunitatean egingo duen euskararen ezagutza proba gainditzea.

### **3.oinarria.-Eskabideak.**

3.1. Deialdian parte hartu ahal izateko eskabideak Sakanako Mankomunitateko Erregistro Orokorrean (Uriz kalea 32, Lakuntza edo [idazkaria@sakana-mank.eus](mailto:idazkaria@sakana-mank.eus) helbide elektronikoa) edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozeinetan aurkeztu beharko dira, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragartzen den egun beretik zenbatzen hasita, hamargarren egun naturaleko 23:59ak baino lehen.

Eskabideak argitaratutako eskabide ereduaren arabera egin beharko dira, eta, bertan, izangaiek eskatzen zaizkien baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute, aurkezteko epea amaitzen den egunari dagokionez.

3.2. Desgaitasun aitortua duten izangaiek, beharrezko dutenean, hautaketa prozesuko ariketak egiteko, denbora- eta baliabide-egokitzapenak eskatu ahal izango dituzte; kasu horretan, eskabide-orrrian adierazi beharko dute zer desgaitasun duten eta zer egokitzapen eskatzen dituzten, eta, horrekin

batera, desgaitasunaren legezko izaeraren jatorrizko egiaztagiria edo fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana.

3.3. Eskabidea behar bezala beteta aurkeztu beharko da. Harekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) NANaren edo hautagaiaren nortasun edo nazionalitatea egiaztatzen duen agiriaren fotokopia eta, hala badagokio, 2.1. oinarrian eskatutako gainerako baldintzena.
- b) Deialdian eskatutako titulazioaren fotokopia.
  - a. Titulazio akademikoa.
  - b. Eskatutako euskara-mailaren titulazioa.
- c) Euskara mailako probaren eskaera, agiri bidez egiaztatzen ez bada.
- d) Hala badagokio, desgaitasuna egiaztatuko duen agiria, organo eskudunak emana.

3.4. Eskabideak aurkezteko epea ezin izango da luzatu.

3.5. Aurreko betekizun horiek agiri bidez egiaztatuko beharko dituzte hautatutako eta kontratatutako izangaiek, adierazten zaien unean, beti ere kontratuak formalizatu aurretik.

Agiri horiek aurkezten ez dituztenak, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, ezin izango dira kontratatu, eta haien jarduera guztiak baliogabetuko dira, parte hartzeko eskabidean faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe.

#### **4. Oinarria.- Izengaiak onartzea eta erreklamazioak.**

4.1. Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Sakanako Mankomunitateko Lehendakariak ebazpena emango du onartutakoan eta baztertutakoan behin behineko zerrenda onartzeko, eta zerrenda Mankomunitateko taulan eta web orrialdean; *sakana-mank.eus* argitaratzeko aginduko du.

4.2. Baztertutako izangaiek erreklamazioak egin eta, hala badagokio, akatsak zuzendu ahal izango dituzte, behin-behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo 3 egun baldiodunen barruan.

4.3. Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta erreklamazioak ebatzi ondoren, Sakanako Mankomunitateko Lehendakariak onartutakoan eta baztertutakoan behin betiko zerrenda onartzeko ebazpena emango du, eta zerrenda Mankomunitateko taulan eta *sakana-mank.eus* webgunean argitaratzeko aginduko du.

Ebazpen horretan, oposizio-ariketak hasteko eguna, tokia eta ordua adieraziko dira.

4.4. Onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtu ahal izango da berehala, izangaien bazterketarik gertatzen ez bada.

4.5. Onartutakoen eta baztertutakoen zerrendetan agertzeak ez du esan nahi interesdunei deialdian eskatutako betekizun guztiak betetzen dituztela aitortzen zaienik. Izangaiek aurkeztu beharreko dokumentazioa edo Administrazioaren esku dauden baldintzaren bat betetzen ez duela ondorioztatzen bada, interesdun horrek deialdian parte hartzetik erator daitezkeen eskubide guztiak galdu egingo ditu.

4.6. Euskararen ezagutza agiri bidez egiaztatu ez duten izangaiek egin beharreko proba onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratu ondoren egingo da, hautaketa-prozesuari hasiera eman aurretik.

Horretarako, 4.3 atalean adierazitako ebazpenean, proba egiteko eguna, ordua eta lekua adieraziko dira.

Horretarako, epaimahaiak Sakanako Mankomunitateko euskara zerbitzuaren laguntza eskatuko du.

Erakunde horrek hizkuntza-mailako berariazko ariketa bat egingo die B2 mailako nahitaezko ezagutza agiri bidez egiaztatzen ez duten izangaiei, eta emaitzak akta bidez jakinaraziko dizkio unitate eskatzaileari.

## **5.oinarria.- Epaimahaia.**

5.1. Epaimahai kalifikatzaileak kide hauek izango ditu:

- Lehendakaria: David Oroz Alonso, Sakanako Mankomunitateko Lehendakaria.
- Ordezkoa: izendatzen duena.
- Batzordekidea: Susana Garrido Lasheras, Etxarri-Aranatzeko Udaleko Garbitzailea.
- Ordezkoa: izendatzen duena.
- Batzordekidea: Nerea Malkorra Areolaza, Sakanako Mankomunitateko kontu hartzailea.
- Ordezkoa: izendatzen duena.
- Batzordekidea: Iosune Telleria Petroch, Sakanako Mankomunitateko kudeatzailea.
- Ordezko: izendatzen duena.
- Batzordekidea: Ana Carrillo Simon, Langileen ordezkaria.
- Ordezkoa: Izendatzen duena.
- Batzordekide: Miren Pereda Razkin, Sakanako Mankomunitateko Idazkaria.

-Ordezko: izendatzen duena.

5.2. Epaimahaia hautaketa-proben aurretik eratu beharko da.

5.3. Epaimahaia ezingo da eratu, ezta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa bertaratu gabe.

Kide anitzeko organoa balio osoz eratzeko eta jarduteko, lehendakaria eta bokal-idazkari bertan egotea, edo, bestela, haien ordezkoak bertan egotea beharrezkoa izango.

5.4. Epaimahai kalifikatzaileko kideek ezin izango dute parte hartu, eta deialdia egin duen organoari jakinarazi beharko diote, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako abstentzio-arrazoiak daudenean.

Halaber, izangaiek epaimahaikideak ezetsi ahal izango dituzte aipatutako egoerak gertatzen direnean.

Legez ezarritako abstentzio- eta ezespren-arrazoiak aplikatzeagatik epaimahaiaren osaeran aldaketaren bat gertatzen bada, epaimahai berriaren osaketa argitara emango eta onartutako eta baztertutako izangaien zerrendekin batera.

5.5. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatzeari eta aplikatzeari buruz sor daitezkeen auzi guztiak.

5.6. Epaimahaiak aholkulari espezialistak sartu ahal izango ditu proba guztietarako edo batzuetarako. Pertsona horiek epaimahaiari lagunduko diote, beren espezialitate teknikoen eremura mugatuz.

Epaimahai kalifikatzailea eratu ondoren, batzordeburua edo idazkaria gaixorik badago edo aldi baterako absente badago, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru Sektore Publiko Instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 21.2 eta 23.2 artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da.

## **6.oinarria.- Hautaketa prozesuaren gauzatzea.**

6.1. Oposizio fasea:

6.1.1. Onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpenean, oposizioko probak non, noiz eta zer ordutan egingo diren zehaztuko da.

Ebazpena mankomunitateko web gunean eta iragarki oholean argitaratuko da.

Oposizio-probaren deialdia, bai eta proba horiek osatzen dituzten ariketa bakoitzarena ere, deialdi bakarraren bidez egingo da, eta izangaiek nortasun agiri nazionala, pasaporte, gidabaimena edo Nafarroan baliozkotasuna duten baliokidea eraman beharko dute.

Oposiziotik kanpo geratuko dira iragarritako data, ordu eta lekuetan agertzen ez diren edo aipatutako dokumenturen baten bidez identifikatzen ez diren izangaiak.

#### 6.1.2. Ariketak:

Oposizioaldian proba teoriko-praktikoa egin beharko da.. Proba horretan, test moduko galdera batzuei idatziz erantzun beharko zaie. Galderok “gaitegi” dokumentuan zehaztutako gaiei buruzkoak izango dira.

Galdetegiko galdera guztiek lau erantzun-aukera izango dituzte, eta horietako bakarra izango da baliozkoa. Galdera guztiek balorazio bera izango dute eta ez da penalizatuko.

Izangaiek ariketa egiteko izango duten gehienezko denbora epaimahaiak ariketa hasi aurretik ezarritakoa izango da.

Gehienez ere 70 puntu lor daitezke ariketa honetan, eta gutxienez 35 puntu lortzen ez dituzten izangaiak hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira.

Proba egiteko, ezin izango da testurik kontsultatu, ez eta kalkulagailurik edo bestelako materialik erabili ere, tinta urdin edo beltzeko boligrafoa izan ezik.

Oposizioa garatzen den bitartean, hala eskatzen duten pertsona desgaituentzat eskabidean adierazitakoaren arabera, hura gauzatzeko denbora eta baliabide egokitzapen posibleak ezarriko dira.

6.1.3. Oposizioa amaitu eta gehienez ere bi egun balioduneko epean, Sakanako Mankomunitateko iragarki-taulan eta webgunean argitaratuko da izangai bakoitzak lortutako puntuazioa.

#### 6.2. Lehiaketa fasea:

Lehiaketa – aldiaren oposizio- aldiaren gainditu duten pertsonak bakarrik baloratuko dira. Honetan, gehienez ere 30 puntu emango dira jarraian azaldutako baremo honen arabera eta ez da baztertzailerik izango:

##### 6.2.1. Esperientzia:

a) Azken bost urteotan garbitzaile lanpostuak bete izanagatik:

- Nafarroako mankomunitate batean: 0,30 puntu hilabete bakoitzeko.
- Nafarroako beste toki erakundeetan: 0,20 puntu hilabete bakoitzeko.
- Beste administrazio publiko batzuetan: 0,10 puntu hilabete bakoitzeko.

Atal honetan 30 puntu lor daitezke gehienez ere.

Frogatutako egun kopurua ez balitz hilabete osora iritsiko, proportzionalki dagokion puntuazioa emango zaio.

b) Merezimenduak zenbatzeko, zerbitzuak eman diren administrazio publikoek emandako ziurtagiriak aurkeztuko dira.

6.3. Lehiaketaren kalifikazioa amaitutakoan, epaimahaiak Sakanako Mankomunitateko iragarki oholean eta webgunean argitaratuko ditu lortutako guztizko kalifikazioekin gainditutako pertsonen zerrenda eta ordezkapen-poltsa osatuko duen puntuazio-hurrenkera korrelatiboa.

Azken kalifikazioa oposizio-faseko ariketen puntuazioen batuketaren emaitza izango da, betiere izangaia kanporatuta geratu ez bada.

### **7.oinarria.- Gaindituen zerrenda, izendapen-proposamena eta dokumentuak aurkeztea.**

Hautatutako pertsonak, behin eskaini zaion kontratua onartuta, deialdian parte hartzeko aukera eman zioten titulu orijinalak aurkeztuko ditu, bai eta lehiaketa-fasean barematutako merezimenduen egiaztagiriak ere.

Behin tituluak egiaztatuta, gehienez ere astebeteko epean hasi beharko du lanpostuan, deialdia egin duen administrazioaren kontratazio proposamena onartzen duen egunetik zenbatzen hasita. Lanean hasten ez bada, eta behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik, edo hura gertatu ondoren berriz ere hutsik geratzen bada, organo eskudunak izangaia hautaketa-prozesuan lortutako puntuaziorik onenaren arabera kontratatu ahal izango ditu, a izangaiek eskainitako kontratazioarekin ados daudela adiera beharko dute.

### **8.oinarria.- Ordezkapen poltsaren funtzionamendua.**

8.1. Zerrendetan, probetan lortutako puntuaziorik handienaren arabera ezarriko da lehentasuna. Berdinketaren kasuan, desgaitasun-maila handiena, 55 urtetik gorako adina eta emakumea izateari erreparatuko zaio, aipatutako ordenan. Oraindik berdinketak jarraitzen badu, zozketa bidez ebatziko da.

8.2. Oposizioaldian gutxienez ezarritako gehieneko puntuazioaren %50a lortzen duten pertsona guztiak sartuko dira aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendetan.



8.3. Zerrenda oinarri hauetan xedatutakoaren arabera kudeatuko da, eta, aurreikusi gabeko gaitan, aldi baterako kontratazioa kudeatzeko arauak onartzen dituen abenduaren 31ko 814/2010 Foru Aginduan ezarritakoaren arabera.

8.4. Eskuarki, lanpostu bat aldi baterako kontratatu behar denean, une horretan eraturako zerrendako lehen postuan dagoen izangaiari deituko zaio. Elkarren segidako bi lanegunetan bi bilaketa saiakera egingo dira telefono bidez, eta deialdi bakoitzaren data, ordua eta inguruabarrak jasoko dira.

Telefonoz aurkitzeko lehenengo lokalizazio saiakerarekin batera, mezu elektronikoko bat bidaliko da izangaiak emandako helbidera. Bidalketa elektronikoko hori egin eta 24 orduko epean erantzunik jasotzen ez bada, eta telefonoz ere harremanetan jarri ezin bada, zerrendako hurrengo pertsonari deituko zaio.

Premiazko zerbitzuak ematen direnean, jakinarazteko edo ohartarazteko ahalegin bakarra egingo da. Kasu horietan, eskaintza ordubetean onartu edo baztertu beharko da, eskaintza egiten den unetik zenbatzen hasita. Hautagaiarekin harremanetan jartzerik lortu ezean, zerrendako hurrengo pertsonari emango zaio eskaintzaren berri, beste izapiderik gabe, sailkapen-ordenaren arabera.

8.5. Eskaintako lanpostuaren kontratazioari uko egiteko arrazoi justifikatutzat hartuko dira eta, beraz, aldi baterako kontratazioarako izangaien zerrendetako lehentasun-ordena aldatzea ez dute ekarriko ondoko arrazoi hauek:

- a) Aldi baterako ezintasuna.
- b) Amatasun- edo aitatasun- baimena.
- c) Harrera iraunkorrean edo adopzioan hartutako hiru urtetik beherako seme-alaba bat edo hiru urtetik beherako bat zaintzea.
- d) Bigarren mailarainoko odol-ahaidetasuna edo ezkontza-ahaidetasuna duen senideren bat bere zaintzapean izatea, adinagatik, istripuagatik edo gaixotasunagatik ezin bada bere kabuz moldatu.
- e) Norberaren ezkontza edo bikote egonkorren berdintasun juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Legearen araberrako antzeko egoera, baldin eta eskaintako administrazio-kontratazioaren hasiera data eratu aurreko edo ondorengo hamabost egun naturalen barruan badago.
- f) Kontratazio bat indarrean izatea, administrazio- edo lan-araubidekoa.
- g) Eskaintako lanpostuaren ordutegi bera duen ikastaro presentzialen bat egiten aritzea.

Zerrendatutako egoeraren batean dauden izangaiek agiri bidez eta modu frogagarrian egiaztatu beharko dute ematen den egoera hori, uko egiten dioten lanpostuaren kontratazioa eskaini zaienetik 7 egun naturaleko epean; kasu horretan, zerrendan duten leku berean jarraituko dute.

Kontratazio-eskaintzari uko egiteko arrazoi justifikatua egiaztatzen duen dokumentazioa epe barruan aurkezten ez bada, hautagai hori zerrendako azken postura pasako da.

Justifikatutako uko egiteen kasuan, idatziz jakinarazi beharko dute uko egitea justifikatu zuen egoera amaitzen den egunetik aurrera zerbitzuak emateko prest daudela. Jakinarazpen hori egiten ez den bitartean, ez zaie lanposturik eskainiko.

8.6. Zerrendatik kanpo geratuko dira honako kasu hauetan dauden pertsonak:

- a) Kontratazio-eskaintza onartu ondoren, dagokion, kontratua ez sinatzea, izangaiari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik.
- b) Sinatutako kontratuari uko egiteagatik edo eskainitako kontratu bat ez onartzeagatik.
- c) Lanpostua uztea.
- d) Probaldia ez gainditzea, baldin eta aukera hau dagokion kontratuan aurreikusi bada.
- e) Kontrataziorako deiak direla eta, urtebetean behin eta berriro hautagaiarekin harremanetan jarri ezin bada, hark emandako telefono-zenbakietan edo helbide elektronikoetan.

### **9.oinarria- Helegiteak.**

Deialdi honen, deialdiaren oinarrien eta egintzen aurka, errekurtsio hauetako bat aurkeztu ahal izango da, hautaz:

- a) Berraztertzeko errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita.
- b) Gora jotzeko helegitea Nafarroako Administrazio Auzitegian, argitaratu edo jakinarazi eta hilabeteko epean.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, zuzenean, Nafarroako Auzitegi Nagusiko ordena bereko salan, bi hilabeteko epean, argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Auzitegiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango zaio organo eskudunari, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo hilabetearen barruan.

**Datuen babesa.- Datuen tratamenduaren arduraduna.**

- a) Datuen tratamenduaren arduraduna: Sakanako Mankomunitateko Idazkaria (Miren Pereda Razkin).
- b) Datuen babeserako ordezkaria: idazkaria@sakana-mank.eus.
- c) Helburua: enplegu-deialdiak kudeatzea botere publikoen jardunean.
- d) Oinarri juridikoa: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.c artikulua: "Tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren arduradunari aplikatu beharreko legezko betebeharrak bat betetzeko" (251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategin onesten duena).
- e) Datuak gordetzeko denbora: datuak gorde eginen dira adierazitako xedea betetzeko behar den denboran, eta gorde eginen dira Mankomunitateak datuak tratatzearen ondoriozko erantzukizunak izaten ahal dituen bitartean. Era berean, artxiboei eta dokumentuei buruzko, apirilaren 4ko, 12/2007 Foru Legean ezarritako kontserbazio-arauak bete behar dira.
- f) Datuen hartzaileak: datuak epaile eta auzitegiei laga ahal izango zaizkie, indarrean dagoen legeria betez, eta Mankomunitatearen web orrian/egoitza elektronikoan eta iragarki-tauletan argitaratuko dira, deialdian adierazten denaren arabera.
- g) Eskubideak: interesdunek eskubidea dute beren datu pertsonalak eskuratzeko, okerrak badira zuzentzeko eta, mankomunitateko-bulegoetara joz, datuak ezabatzeko.
- h) Era berean, interesdunek erreklamazioa aurkez dezakete Datuak Babesteko Espainiako Agentzian, Jorge Juan kalea 6, 28001 (Madril) edo [www.agpd.es](http://www.agpd.es) helbidean duten egoitza elektronikoaren bitartez.
- i) Informazio gehiago: pribatutasun-politika mankomunitateko-webgunean.

Lakuntzan, 2022ko martxoaren 18an.- Lehendakaria, David Oroz Alonso.

Izen deiturak:....., adinez nagusia,  
NAN zenbakia:.....Jaioteguna:.....  
Jaioterria..... (.....).  
Bizitokia:..... (.....), .....kalea/zenbakia/solairua  
.....Posta-kodea:.....  
Telefonoa:..... Helbide  
elektronikoa:.....agertu da eta egoki den moduan.

**ADIERAZTEN DUT:**

- ✓ B2 hizkuntza-eskakizuna duen Sakanako Mankomunitateko garbitzaile lanpostua hauta proben bidez betetzeko hautagai zerrenda osatzeko deialdian onartua izatea.
- ✓ Ez dudala karguan aritzea galarazten didan eritasunik edo akats fisikorik nahiz psikikorik.
- ✓ Ez dudala indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunetatik batere.
- ✓ Ez naizela diziplina espediente bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik baztertua izan eta ez nagoela ezgaitua eginkizun publikoak betetzeko.
- ✓ Deialdian eskatzen den titulazioaren jabe naizela.
- ✓ Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, behar diren baldintza guztiak betetzen ditudala.
  - Desgaitasuna dudala eta, beraz, behar ditudan egokitzapenak eskatzen ditudala, haietarako arrazoiak adierazita. (Eskatzen diren egokitzapenak eta haietarako arrazoiak azaldu). Desgaitasuna frogatzen duen agiria aurkezten dudala, erakunde eskudun batek emana.....
  - Euskara froga egitea eskatzen duela.
- ✓ Eskabideari agiri hauen fotokopiak erantsi dizkiodala:
  - Nortasun agiri nazionala.
  - Eskatzen den titulazio akademikoa eta euskara titulua.
  - Merezimenduak, lehiaketaldirako.
- Minusbaliotasuna egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu duela, erakunde eskudunak emana.

**Horrenbestez, ESKATZEN DUT:**

Onartua izatea Sakanako Mankomunitatearen garbitzaile lanpostua aldi baterako eta administrazio-araubidean betetzeko deialdian.

Lakuntzan, 2022ko.....ren.....ean.

(Sinadura)

DATUEN BABESA. Tratamenduaren arduraduna: Sakanako Mankomunitatea. Helburua: langileak hautatzea eta deialdi honen xede den lanpostua betetzea. Eskubideak: datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea, baita beste hainbat eskubide ere.

## GAITEGIA

- Garbiketaren kontzeptu orokorrak. Garbiketa-produktuak. Produktuen etiketetan erabilitako sinboloen esanahia.
- Garbiketa-sistemak.
- Gelak garbitzea.
- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu betegina. Langile-motak. Hautaketa. Funtzionario-izaera eskuratzea eta galtzea. Administrazio-egoerak. Lanpostuak betetzea. Ordainsariak. Eskubideak eta betebeharrak. Diziplina-araubidea.
- Lanpostuko segurtasun- eta higiene-nozioak eta –neurriak.
- Produktu kimikoak.

Gai zerrenda Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren E mailako 2017ko deialdiko MAD argitaletxearen eskuliburuan oinarrituta dago, eta parte-hartzaileen eskura egonen da Arbizuko udal liburutegian.

Eskuliburuaren fotokopiak egin eta liburutegian bertan kontsultatu ahal izango da, baina ezingo da maileguan eskatu. Kontsultarako eta fotokopiak egiteko egongo da.